5100.211.173.00.01	KIROL ERAIKUNTZEN ETA MANTENIMENDUA	4.194,98	4.194,98
6000.131.151.00.01	ALDARTEKO PERTSONALA - HIRIGINTZA	17.182,25	17.182,25
6000.160.151.00.01	GIZARTE SEGURANTZA - HIRIGINTZA	5.670,14	5.670,14
8000.131.430.00.01	ALDARTEKO PERTSONALA - TURISMO	19.657,90	19.657,90
8000.160.430.00.01	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK - TURISMO	6.487,10	4.434,41
9510.622.342.00.01	KIROLDEGI AURREAN ESTALKIAREN INSTALAZIO	80.000,00	39.752,17
9600.600.133.00.01	ASKIZUN LURSAILAREN EROSKETA	33.000,00	32.070,05
9600.609.133.00.01	PORTU EREMUKO LANAK	98.581,20	93.234,66
9600.622.151.00.01	PROIEKTUEN IDAZKETA	29.619,38	29.482,35
9600.622.342.00.01	HIRIGINTZA JARDUKETAK	35.000,00	24.569,77
9600.622.342.00.01	HIRIGINTZA JARDUKETAK	22.321,98	22.014,52
9600.623.425.00.02	ENERGIA ETA INGURUGIROA	9.087,93	9.087,93
9800.622.333.00.01	ZARAUTZ JAUREGIA EGITASMOA	835.947,63	831.916,67
9800.622.333.00.01	ZARAUTZ JAUREGIA EGITASMOA	11.762,29	6.932,88
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.433.409,32</b>	<b>1.333.987,64</b>

Kreditu aldaketarako hainbat espedienteen bidez, eta diruzaintza gerakinarekin finantzatuta, hainbat partiden kredituak handitu dira edo kreditu berriak sortu ( Kreditu txertaketa edo kreditu gehigarrien bidez), 2025 urtean, guztira 1.433.409,32 euroko partidak finantzatu dira, eta zenbateko honetarik obligazio onartuak 1.333.987,64€

## 8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berariazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.
- Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.
- Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:
- Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.
- Eta denbora tarte berean gauzatutako gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.
- gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:
- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulaturakoak.
- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokkeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA		DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK	
PARTIDA	AZALPENA	METATUTAKOAK	EKIT.EGOZTEKOA
1200.131.920.00.01	ALDI BATERAKO PERTSONALA - ADMINISTRAZIOA	-2.096,10	-2.096,10
1200.160.920.00.01	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK - ADMINISTRAZIO	-678,11	-678,11
8000.131.430.00.01	ALDI BATERAKO PERTSONALA-TURISMO	-2.336,28	-2.336,28
8000.160.430.00.01	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK - TURISMO	-777,29	-777,29
	<b>Proiektua, guztira:Gazteak kontratatzeke EGF Plus Programa</b>	<b>-5.887,77</b>	<b>-5.887,77</b>
4000.131.163.00.01	ALDI BATERAKO PERTSONALA - BRIGADA	-3.081,52	-3.081,52
4000.160.163.00.01	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK - BRIGADA	-1.089,93	-1.089,93
	<b>Proiektua, guztira:Toki ekintzetarako 2025 enplegu plana</b>	<b>-4.171,45</b>	<b>-4.171,45</b>
9600.622.151.00.01	PROIEKTUEN IDAZKETA <b>Proiektua, guztira:HAPO berrizteko dokumentuaren idazketa</b>	24.485,50 <b>24.485,50</b>	24.485,50 <b>24.485,50</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>14.426,28</b>	<b>14.426,28</b>

Sarrera-kontzeptuen arabera, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapen finantzario metatuak honela zehaztuta daude:

SARREREN KONTZEPTUA	AZALPENA	DESBIDERAPEN METATU POSITIBOAK	DESBIDERAPEN METATU NEGATIBOAK	EKITALDIARI EGOZTEKO DESBIDERAP.
0000.410.000.00.01	E.H.KO ATUTONOMI ELKARTEKO BESTE T.A. <b>Total proyecto:Gazteak kontratatzeke EGF Plus Programa</b>	0,00 <b>0,00</b>	5.887,77 <b>5.887,77</b>	-5.887,77 <b>-5.887,77</b>
0000.410.000.00.01	E.H.KO ATUTONOMI ELKARTEKO BESTE T.A. <b>Total proyecto:Toki ekintzetarako 2025 enplegu plana</b>	0,00 <b>0,00</b>	4.171,45 <b>4.171,45</b>	-4.171,45 <b>-4.171,45</b>
0000.720.000.00.01	FORU DIPUTAZIOAREN KAP.TRANSF. <b>Total proyecto:HAPO berrizteko dokumentuaren idazketa</b>	24.485,50 <b>24.485,50</b>	0,00 <b>0,00</b>	24.485,50 <b>24.485,50</b>
<b>DESBIDERATZEAK, GUZTIRA</b>		24.485,50	10.059,22	14.426,28

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak EGF Plus 2021-2027 Programaren barruan gazteak kontratatzeke laguntzen deialdia atera zuen. Deialdi honen baitan 2 pertsona kontratatu ziren azaroak 30ean 12 hilabeteetarako, eta dirulaguntza guztia 2026an jasoko da.

Bestalde Toki ekintzetarako 2025 enplegu planaren baita brigadarako 2 pertsona kontratatu ziren 6 hilabeteetarako, eta dirulaguntza 2026an jasoko da.

Azkenik, Udalak HAPO berrizteko dokumentuaren idazketa lanak esleitu zituen 338.800 eurotan, eta 2025, 2026 eta 2027an burutuko da lana. Finantzazioari dagokionez Gipuzkoako Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzean 30.000,00€ euroko diru-laguntza eman ahalko du.

Lehenengo 2 proiektuek desbiderapen negatiboa eman ditu (-10.059,22€), eta 3. proiektuak desbiderapen posibiboa (+24.485,50€)

## 9.- SALDO KOBRAGAITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAGAITZA %-TAN.	KOBRAGAITZA EUROTAN
2 URTETIK GORAKO ZORRAK	167.046,91	0,00	56,80	94.882,64
<b>URTEBETETIK GORAKO ZORRAK</b>	11.955,93	0,00	0,00	364,51
1. kap.: zuzeneko zergak	4.269,78	0,00	6,00	256,19
2. kap.: zeharkako zergak	1.138,57	0,00	1,00	11,39
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	6.462,20	0,00	1,50	96,93
5. kap.: ondare sarrerak	85,38	0,00	0,00	0,00
<b>URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK</b>	848.995,90	0,00	0,00	1.028,73
1. kap.: zuzeneko zergak	16.238,38	0,00	5,00	811,92
2. kap.: zeharkako zergak	13.968,23	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	21.680,79	0,00	1,00	216,81
4. kap.: transferentzia arruntak	140.252,35	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	371,89	0,00	0,00	0,00
7. kap.: kapital transferentziak	300.484,26	0,00	0,00	0,00
9. kap.: pasibo finantzarioak	356.000,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.027.998,74</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>96.275,88</b>

Bi urtetik gorako zorrak %100ean kobragaitza estimatu behar dira orokorrean. 2025eko likidazioan estimazio hau %56,80an finkatu da. Honen justifikazioa hau izan da:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza 72.170,00€, 2023an etxebizitza tutelatuaren obrak burutzeko foru aldundiak 123.376,00ko dirulaguntza eman zuen, lehen zatia jaso zen (51.206,00€) 2024/01/30ean eta kobratzeko geratu dira 72.170,00€.

Eskubide onartuak							
4 0000.720.000.00.01 2023 (132) FORU DIPUTAZIOAREN KAPITAL TRANSF.							
Siglak	Kode Kontablea/Sarrera	Data	Hirugarrena	NA	Egoera	Deskribapena	Zerbatekoa
R	30 2023-00-001475-000	2023/08/09	203 - GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	P2000000F		POTZUAGA KALEA 5 BEHEAN ETXEBIZITZA TUTELATUA ERAIKITZEKO DIRULAGUNTZA (	72.170,00
Kateko totalak		<b>Eskubide onartuak</b>	72.170,00	<b>Deuseztatutako</b>	0,00	<b>Eskubide garbiak</b>	72.170,00
		<b>Sarrerak</b>	0,00	<b>R4</b>			72.170,00
Guztizkoak		<b>Eskubide onartuak</b>	72.170,00	<b>Deuseztatutako</b>	0,00	<b>Eskubide garbiak</b>	72.170,00
		<b>Sarrerak</b>	0,00	<b>R4</b>			72.170,00

- TotemTowerco spain enpresaren telefoniako tasa, R eragiketa bikoiztuta zegoen (2022 eta 2023 urtekoak, 5.086,51€, guztira 10.173,02€). Lehenengo R eragiketak (5.086,51€) BEZa barne, 2. R-ak (4.203,73€) BEZa aitortzeko bananduta, beraz 2 urteetako 5.086,51, bez barne, ezabatu egin dira, eta 4203,73 + bez kobratu.

Eakubide onartuak											
4 0000.321.000.00.01 2023 (11) TELEFONOGINTZAREN INSTALAZIOAK											
Siglak	Kode Kontablesa/Sarrera	Data	Hirugarrena	NA	Egoera	Deskribapena	Zerbatekoa				
R	30 2023-00-001613-000	2023/12/31	5978 - TOTEM TOWERCO SPAIN, S.L.U.	B16951881	+	TELEFONIA MUGIKORREKO BASEAREN INSTALAZIOEKIN UDAL JABETZAREN OKUPAZIOA, 2022 F	5.086,51				
Kateko totalak		<b>Eakubide onartuak</b>	5.086,51	<b>Deuseztatutako</b>	0,00	<b>Eakubide garbiak</b>	5.086,51	<b>Sarrerak</b>	0,00	<b>R-I</b>	5.086,51
R	30 2023-00-001614-000	2023/12/31	5978 - TOTEM TOWERCO SPAIN, S.L.U.	B16951881	+	TELEFONIA MUGIKORREKO BASEAREN INSTALAZIOEKIN UDAL JABETZAREN OKUPAZIOA, 2022 F	5.086,51				
Kateko totalak		<b>Eakubide onartuak</b>	5.086,51	<b>Deuseztatutako</b>	0,00	<b>Eakubide garbiak</b>	5.086,51	<b>Sarrerak</b>	0,00	<b>R-I</b>	5.086,51
R	30 2023-00-001619-000	2023/12/31	5978 - TOTEM TOWERCO SPAIN, S.L.U.	B16951881	+	TELEFONIA MUGIKORREKO BASEAREN INSTALAZIOEKIN UDAL JABETZAREN OKUPAZIOA, 2022 F <b>BEZa bananduta</b>	4.203,73				
I	32 2024-00-000217-000	2024/01/06	5978 - TOTEM TOWERCO SPAIN, S.L.U.	B16951881	+	TELEFONIA MUGIKORREKO BASEAREN INSTALAZIOEKIN UDAL JABETZAREN OKUPAZIOA, 2022 F <b>BEZa bananduta</b>	4.203,73				
Kateko totalak		<b>Eakubide onartuak</b>	4.203,73	<b>Deuseztatutako</b>	0,00	<b>Eakubide garbiak</b>	4.203,73	<b>Sarrerak</b>	4.203,73	<b>R-I</b>	0,00
R	30 2023-00-001621-000	2023/12/31	5978 - TOTEM TOWERCO SPAIN, S.L.U.	B16951881	+	TELEFONIA MUGIKORREKO BASEAREN INSTALAZIOEKIN UDAL JABETZAREN OKUPAZIOA, 2023 F	4.203,73				

Gainerako zorren estimazioa kapituluz kapitulu egin dira, %1 eta %6 bitartean, guztira kobragaitza estimatu dena 96.275,88€.

## 10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak, 48. Artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	4.718.526,96	3.723.333,05	995.193,91
b) Kapital-eragiketak	524.382,43	2.028.781,60	-1.504.399,17
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	751.000,00	200.757,15	550.242,85
	<b>5.993.909,39</b>	<b>5.952.871,80</b>	<b>41.037,59</b>
<b>1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA (1=a+b+c+d)</b>			
KONTZEPTUAK	AINTZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINTZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	10.720,89	10.608,24	-112,65
b) Kapital-eragiketak	-0,00	7.139,00	7.139,00
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
	<b>10.720,89</b>	<b>17.747,24</b>	<b>7.026,35</b>
<b>2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)</b>			
<b>3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)</b>			<b>48.063,94</b>
<u>DOIKUNTZAK :</u>			
a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			1.333.987,64
b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak			10.059,22
c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak			24.485,50
			<b>1.319.561,37</b>
<b>4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)</b>			
<b>AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)</b>			<b>1.367.625,31</b>

2025 ekitaldiko aurrekontu emaitza POSITIBOa izan da doitu aurretik 41.037,59€. Ekitaldian onartutako eskubideak (sarrerak, 5.993.909,39€) onartutako obligazioak gainditu ditu. (gastuak, 5.952.871,80€). Emaitza positibo hau oso txikia da, baina kontutan izan behar diruzaintza gerakina erabili dela hainbat gastu finantzatzeko ( 1.339.987,64€) batez ere AD eragiketak burutzeko gastuak, gastu hauen barne gehienbat Zarautz Jauregiko obra arkitektoniko eta museistikoaren gastuak.

5.993.909,39 euroko sarreren barne ez dago diruzaintza gerakinaren zenbatekoa (1.339.987,64€) zeren dagoeneko jasota dago 2024ko likidazioan, aldiz, 2025eko gastuei bai gehitu zaizkio gerakinarekin finantzatutako gastuak, horregatik egiten dugu gerakinaren doikuntza eta azkenik emaitza positiboa atera da 1.422.051,58€tan.

Itxitako aurrekontuei dagokionez emaitza positiboa izan da. Kobratzeko eskubideak deuseztatzen badira emaitza negatiboa bihurtzen da eta gastuetan deuseztatutako obligazioak emaitza positiboa sortzen du, bien baturak adierazten du itxitako emaitza.

Azkenik, ekitaldiko desbiderapen finantzarioak ere kontutan hartu behar dira, hauek batuz beste positiboak dira. 1. Kapituluaren diruz lagundutako langileen kontratazioaren sarrera eta gastuen desbiderapen emaitza negatiboa izan da 10.059,22€tan. Eta beste aldetik HAPOaren berriztearen gastu eta sarrerak desbiderapen emaitza positiboa izanda 24.485,50€, zenbateko hau diruzaintza gerakinaren emaitzan kontutan izango da finantzaketa lotua duten gastuentzat.

## 11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

4/1991 Foru Arauak, 48. artikuluan, eta 96/1992 Foru Dekretuak, 59. artikuluan, arautu dute diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likidezaren soberakina adierazten du. Bestela esan da: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, abenduaren 31n ere azken horien epemuga amaituko litzatekeela pentsatuz.

Bi dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina, hain zuzen ere, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboak batuz osatzen da. Desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulaten dira lotutako finantzaketa jasotzen duten sarrera-aurrekontuko partida bakoitzarentzat (8. apartatuan zehaztuta daude). 2019ko ekitaldian desbiderapen finantzarioa izan zezakeen partidarik ez dago.

Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota, halakorik balitz, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina kenduko zaio altxortegi gerakin osoari.

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	<b>1. (+) funts likidoak</b>	<b>2.645.554,48</b>
	<b>2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak</b>	<b>1.154.231,28</b>
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	973.014,48
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	179.002,84
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	2.213,96
	<b>3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak</b>	<b>1.661.782,39</b>
400	-(+) urteko aurrekontukoak	639.595,40
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	17.418,48
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	1.004.768,51
	<b>4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak</b>	<b>686,08</b>
554,559	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00
555, 5581, 5585	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	686,08
	<b>I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)</b>	<b>2.138.689,45</b>
4900,4901,4902,4903	<b>II. Kobrantza zalantzagarriko saldoak</b>	<b>96.275,88</b>
	<b>III. Gehiegizko finantzaketa lotua</b>	<b>24.485,50</b>
	<b>IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)</b>	<b>2.017.928,07</b>

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira **2.138.689,45** eurokoa izan da; horietatik:

- 96.275,88 euro, hau da, kobrantza zalantzarriko saldoen hornidura (2012-2025), kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.
- 24.485,50 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua (positiboa). Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.
- 2.017.928,07 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

## 12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	2.090.625,51
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	48.063,94
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	2.138.689,45

2024ko diruzaintza gerakin gordinatik habiatuta ( 2.090.625,51€), honi itxitako ekitaldian izandako doikuntzak gehituz ematen digu aurtengo ekitaldiko diruzaintza gerakina gordinaren zenbatekoa ( 2.138.689,45€).

Zenbateko hau bat dator 2025eko diruzaintza gerakinaren emaitza ateratzeko kontutan izan diren eragiketen emaitzarekin (banketxeko fondoak, kobratzeko eskubideak, ordaintzeko obligazioak, aurrekontuz kanpoko saldoak eta aplikatu gabeko zenbatekoak), horrela egiaztatzen dugu ekitaldiaren emaitza.

### 13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin-betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

4/1991 Foru Arauak 44.1 artikuluan eta 96/1992 Foru Dekretuak 53.1 artikuluan agintzen dutenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbidez erabat indargabetuta geratuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak, 32.1 artikuluan, eta Foru Dekretuak, 38.1 artikuluan, jaso dute zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- a) Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilean onartu badira.
- b) Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- c) Kreditu habilitatuak eta sarrera lotuekin zerikusia duten beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zurrizko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
1 2000.121.132.00.02 2025	UDALZAINGO PERTSONALAREN BERARIAZKO OSAG	1.428,32	X				
1 8000.130.430.00.01 2025	PERTSONAL LABORALA - TURISMO	6.323,52	X				
1 1200.131.920.00.01 2025	ALDARTEKO LABORALA - ADMINISTRAZIOA	634,31	X				
1 8000.160.430.00.01 2025	GIZARTE SEGURANTZA KUOTAK -TURISMO	14.505,31	X				
1 3100.203.326.00.01 2025	GARRAIO MATERIALAREN ERRENTAMENDUA	4.450,60		X			
1 4000.210.153.00.03 2025	BIDE PUBLIKOEN MANTENIMENDUA	2.516,80		X			
1 3100.211.323.00.01 2025	HERRI ESKOLAREN KONPONKETA ETA MANTENIM.	3.642,22	X				
1 4000.211.152.00.01 2025	BESTE ERAIKINEN KONPONKETA ETA MANTENIM.	356,95		X			
1 4000.212.165.00.02 2025	INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MANTENIMENDUA	4.082,36		X			
1 5000.220.330.00.02 2025	PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK -KULTURA	1.223,52		X			
1 4000.221.153.00.05 2025	ARROPEN HORNIDURA	422,17		X			
1 4000.221.153.00.15 2025	MARGOKETA MATERIALAREN HORNIDURA	4.249,40		X			
1 4000.221.153.00.99 2025	BESTELAKO HORNIDURAK	11.282,76		X			
1 5000.226.334.00.06 2025	SAN SALBADOR JAIK	2.173,39		X			
1 5000.226.334.00.07 2025	SAN ANTON JAIK	2.801,01		X			
1 5000.226.334.00.09 2025	BESTE IHARDUERA KULTURALAK	1.006,01		X			
1 2200.226.231.00.99 2025	PREBENTZIO - DROGOMENPEKOTASUNA -GURASO	3.600,00		X			
1 2200.227.230.00.01 2025	BERDINTASUNA	1.125,00		X			
1 4000.227.163.00.02 2025	BESTELAKO ZERBITZUAK	2.994,75		X			
1 2200.227.231.00.06 2025	ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	7.368,03		X			
1 5000.481.334.00.03 2025	ENTITATE T.A. - KULTUR ENTITATEAK	9.373,92	X				
1 2200.481.230.00.04 2025	ENTITATE T.A. - GIZARTE ENTITATEI	2.043,00	X	X			
1 9600.600.133.00.01 2025	ASKIZUN LURSAILAREN EROSKETA	929,95					X
1 9600.609.133.00.01 2025	PORTU EREMUKO LANAK	143.773,35		X			X
1 9800.609.439.00.01 2025	TOKI GARAPENA - HERRI IDENTITATEA	9.951,90	X				X
1 9500.622.334.00.01 2025	ESPazio AUTOGESTIONATUA	224.050,00					X
1 9510.622.342.00.01 2025	KIROLDEGI AURREAN ESTALKIAREN INSTALAZIO	418.074,37		X			X
1 9800.622.333.00.01 2025	ZARAUTZ JAUREGIA EGITASMOA	23.517,81	X	X	X		X
1 9600.622.151.00.01 2025	PROIEKTUEN IDAZKETA	15.959,54		X			X
1 9600.622.342.00.01 2025	HIRIGINTZA JARDUKETAK	60.048,34	X	X			X
1 9600.623.425.00.02 2025	ENERGIA ETA INGURUGIROA	58.220,38		X			X
1 9120.626.920.00.01 2025	EKIPO ETA MATERIAL EROSKETA	994,11	X				X
1 1000.932.011.00.01 2025	EPE LUZERAKO MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	0,30	X				X
<b>TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA</b>		<b>1.043.123,40</b>					
<b>TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA</b>		<b>481.270,63</b>					
<b>KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA</b>		<b>1.524.394,03</b>					

*Txerta daitezkeen kredituen artean hauek dira garrantzitsuenak:*

9510.622.342.00.01 Kiroldegi aurrean estalkiaren instalazioa, 418.074,37€

9510.622.342.00.01 2025	KIROLDEGI AURREAN ESTALKIAREN INSTALAZIO	418.074,37
-------------------------	---	------------

2025eko uztailaren 18an esleitu ziren Kiroldegi aurrean estalkiaren instalazio lanak Iparragirre Eraikuntza lanak, sl enpresari 756.250,00€tan. 2025eko abuztuaren 7an esleitu ziren baita obra honi dagokion obra zuzendaritzaren zerbitzua Adi Bulegoak enpresari, 27.976,71€tan, eta abenduak 31an oraindik lanak burutzeko geratu dira.

Lan hauen gastuentzat kreditu nahiko izateko partidaren kreditua 80.000,00€tan handitu zen kreditu aldaketarako espediente bidez. Ondorioz, ikusirik esleitutako zenbateko guztia ez dela iritzi O fasera "obligazio onartua", 418.074,73€ko kreditu gerakina saldoa dago txertagarri.

9500.622.334.00.01 Espazio autogestionatua, 224.050,00€

9500.622.334.00.01 2025	ESPAZIO AUTOGESTIONATUA	224.050,00
----------------------------	-------------------------	------------

2025ean hasi ziren Gazte eta kultur eragileentzako espazio autogestionatua egiteko obra esleipenarako tramiteak. Lan hauen esleipena 2026ko urtarrilak 26an onartu zen eta Iparragirre Eraikuntzak, sl. enpresak bereganatu zituen lanak, guztira 429.550,00€tan, 2025 urtean 224.050,00€ eta 205.500,00€ 2026 ekitaldian.

Beraz, abenduak 31an oraindik kreditu guztia 224.050,00€ "A" fasean geratu da eta 2026 urterako kreditu txertagarri.

9600.609.133.00.01 Portuko Eremuko Lanak, 143.773,35€

9600.609.133.00.01 2025	PORTU EREMUKO LANAK	143.773,35
----------------------------	---------------------	------------

Partida honen aurrekontua 350.000,00€ ziren 2025 urterako. Honen kargura hainbat lan burutu dira portu eremuan, guztira 209.151,15€. Gainerako kreditua (143.773,35€) kreditu txertagarri geratu dira, baina ez da txertatuko 2026 ekitaldira, zeren egindako gastua likidatu da 2025 urtean 4140 kontuko funtsekin. 2026 ekitaldiko aurrekontuetan aurreikusi da kreditu berria.

- Ute Zarautz Jauregia, obra arkitektonikoa 275.156,09€ + 48.103,01€  
( 17. eta 18. Lan-ziurtagiriak)
- Reinadecoraciones, obra muiseistikoa 531.799,59€
- Erabili gabeko kredituak 52.632,54€

9600.622.342.00.01 Hirigintza jarduerak, 60.048,34€

9600.622.342.00.0 1 2025	HIRIGINTZA JARDUKETAK	60.048,34
-----------------------------	-----------------------	-----------

Partida honetan aurreikusitako hainbat gastu burutu dira 2025 urtean zehar. Urteko azken hilabetean beste hainbat lanak baimendu eta erabili dira baita eta hauek abenduak 31an burutzeko geratu dira, guztira 59.725,32€, hauek besteak beste:

- Askizuko bidearen konponketa lanak, 48.396,37€
- Aldamar parkeko haur jolasen mantenua, 3.448,50€
- Santanapeko urbanizazioaren proiektua, 7.260,00€

9600.623.425.00.02 Energia eta Ingurugirioa, 58.220,38€

9600.623.425.00.02 2025	ENERGIA ETA INGURUGIROA	58.220,38	X	X
----------------------------	-------------------------	-----------	---	---

Partida honetan aurreikusitako lana da Alde Zaharreko argiteria berritzea, 55.000,00€, esleitzeko tramiteak abenduak 31an oraindik amaitzeko geratu dira, gainerako kreditua ere txerta daiteke..

Gainerako kredituen txertaketak banan bana aztertu eta burutuko dira 2026 urtean.

## 15.- KONPROMISU KREDITUAK

2025 urtean hainbat inbertsio burutzeko esleipenak onartu dira. Gehienak urteko aurrekontuaren kargura izan dira guztiz. Beste lan batzuk 2 edo 3 ekitaldietan burutzeko esleitu dira eta horretarako konpromisu kredituak erabili.

Hauak izan dira konpromisu kredituak dituzten inbertsioak:

<i>Partida</i>	<i>Inbertsioa</i>	<i>Esleipena zk.</i>	<u>2025</u>	<u>2026</u>	<u>2027</u>
9500.622.334.00.01	Espazio autogestionatua	429.550,00€	224.050,00€	205.500,00€	0,00€
9600.622.151.00.01	HAPO berrikusteko dokumentuaren idazketa	338.800,00€	60.000,00€	80.000,00€	198.800,00€
.					

## 16.- AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNA

Aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak formalki betetzen dira:

### 2025. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ARAUDI APLIKAGARRIA

- \* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- \* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

### FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

#### 1. ENTITATE ERRENDA: GETARIA

#### 2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

#### Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izan da 2025. urtean:

Superabita:	379.667,70€
DGarekin finantzatutako defizita:	379.667,70€

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta. Ondoko taulan xehatzen da egin den kalkulua:

Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	5.242.909,39
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	5.752.114,65
SEC doikuntzak	129.537,56
Finantzaketa ahalmena / premia	<u>-379.667,70</u>
DGak finantzatutako obligazio ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	1.226.109,31
DGak finantzatutako defizita:	-379.667,70
Finantzaketa ahalmena / premia, erreferentziakodefizitarekin alderatzeko	0,00

2025. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2025. Urterako helburua

### Finantzen iraunkortasuna

2025-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izan da, 2025. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %15.92

Kalkulua egiteko, 2024-12-31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

2024. urterako ezarritako helburua zor bizia %70 baino handiagoa ez izatea da.

### Gastuaren araua

2024. urtean gastu konputagarriaren bilakaera honakoa izan da:

Gastu konputagarria	4.605.500,78
Gastuaren muga	<u>4.613.552,91</u>
Diferentzia	-8.052,13

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko Taulan xehatzen den moduan

	<u>2025</u>	<u>2024</u>
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	5.752.114,65	5.193.609,43
Zorraren interesak:	5.520,97	11.505,45
SEC doikuntzak:	-129.537,56	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua:	1.011.555,34	711.606,97
Gastu konputagarria:	<u>4.605.500,78</u>	<u>4.470.497,01</u>
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa: %2,60	143.055,90	
Arau aldaketen eragina:	0,00	
Gastu muga:	4.613.552,91	
Gastu konputagarria-Gastuaren muga:	-8.052,13	

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du 2025. Urterako gastuaren araua

### 3. ONDORIOAK

"Toki entitate honek, berez, ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren arloan 2025. urterako ezarritako helburua.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, kontu-hartzaile honek berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, udalbatzarrari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomiko finantzarioa ordezkaturiko duena.

Beraz, plan ekonomiko-finantzarioa egiteko obligazioaren ondorioetarako, 2025. urterako helburuak eta gastuaren araua betetzat ematen dira."

## 17.- PORTUKO TAO ZERBITZUA

Eusko Jaurlaritzak 2016ko maiatzaren 16ko ebazpen bidez Getariako Udalarari Getariako portuko aparkalekuen jabari publikoa okupatzeko emakida eman zion. Emakida honen helburua portuko aparkaleku eta trafikoaren kudeaketaren ez-irabazizko arauketa bideratzea. Emakida honen iraupena 5 urtekoa zen (2016-2020) eta 2021ean beste 5 urterako luzapena onartu zen (2021-2026). Aparkaleku eta trafiko kudeaketa honen baitan portuan TAO zerbitzua ezartzen da udara aldian, ekainak 1etik irailak 30 arte. Urtero TAO zerbitzua amaitu ondoren Udalak egindako zerbitzuaren memoria ekonomikoa aurkeztu behar du Eusko Jaurlaritzari izandako diru-sarrera eta gastuak adieraziz, eta zerbitzu honetan izandako irabazien destinoa portuan egingo diren inbertsioak izango da.

Labur bilduz hauek izan dira azken urteetako emaitzak

### METATUTAKO GERAKINA 2016 - 2025 REMANENTE ACUMULADO

	<u>urtez urte</u>	<u>metatuta</u>
	<u>anual</u>	<u>acumulado</u>
2016	100.644,06 €	100.644,06 €
2017	54.559,05 €	155.203,11 €
2018	113.763,52 €	268.966,63 €
2019	97.424,58 €	366.391,21 €
2020	99.100,47 €	465.491,68 €
2021	177.171,32 €	642.663,00 €
2022	137.527,19 €	780.190,19 €
2023	174.879,48 €	955.069,67 €
2024	208.627,57 €	1.163.697,24 €
2025	283.841,94 €	1.447.539,18 €
<b>Guztira</b>	<b>1.447.539,18 €</b>	
<b>Erabilitakoa</b>	<b>- 973.084,60 €</b>	
<b>SALDO GARBIA</b>	<b>474.454,58 €</b>	

2025an metatutako gerakina honen kargura hirigunea eta portu eremuaren arteko ezpondaren egonkortze lanetarako hainbat gastu burutu dira:

<u>2025 urtean</u>		<u>9600,609,333,00,01</u>	
Tesinsa	Ezponda egonkortu eta babestu. 4. ziurtagiria	-	24.318,80 €
Tesinsa	Ezponda egonkortu eta babestu-Likidazioa	-	13.840,20 €
Tesinsa	Ezponda egonkortu eta babestu (Ketarri)	-	130.679,13 €
ikerlur	Ezpondako lanen zuzendaritza (ketarri)	-	7.865,00 €
Bategin slp	Ezpondaren segurt. Koord. Plana eta bisitak	-	1.911,80 €
Bategin slp	Ezpondaren segurt. Koord. (ketarri)	-	1.132,56 €
Tesec Señalizaciones,sl	Portuan seinalizazioa - Gaztetape	-	14.990,70 €
Tesec	Portuan seinalizazioa - Malkorbe	-	13.106,16 €
Santiago Guridi	Grua zerbitzua - moto nautikoak	-	1.306,80 €
	<u>Guztira gastuak 2025</u>	-	<u>209.151,15 €</u>

Aurreko urteetan burututako inbertsio eta gastuak

763.933,45€

**Gastu guztia 2016-2025**

**973.084,60€**

2025 arte inbertsio eta gastua hauek egin dira, eta ondorioz abenduaren 31an geratu den saldoa 474.54,58€ da, eta 4140 kontuan jasota dago.

## Kontuaren saldoak

### Kontuaren datuak

Kontua  ENT.PUBL.BALIABIDEEN BILKET.HARTZEKODUN  (Azken maila) D/H

Itxiera-Itazpenekin

Hasierako Izakina	399.763,79	H	
Zorra guztira	209.151,15		Eragiketak, Zorra
Hartzekoa guztira	283.841,94		Eragiketak, Hartzekoa
Amaierako Izakina	474.454,58	H	

### Bestelako saldoak

## 18.- UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

2025 ekitaldiri honi dagokionez, aurreikuspenak 2.553.094,96 eurokoak izan ziren, 87.859,96 gehiago 2024 urtea baino, eta ekitaldi amaitu ondoren emaitza positiboa izan da +110.386.94 euroko likidazioa jasoz. Guztira 2025 urtean 281.18,63€ gehiago.

<u>Ekitaldia</u>	<u>Aurreratutakoa</u>	<u>Emaitza negatiboa</u>	<u>Emaitza positiboa</u>
<b>2025</b>	<b>2.553.094,96€</b>		<b>+110.386,94€</b>
2024	2.465.235,00€	- 82.771,73€	
2023	2.179.865,68€		+ 20.770,33€
2022	2.123.000,00€		+ 72.422,50€
2021	1.886.029,00€		+318.854,54€
2020	2051.007,00€	-207.532,41€	
2019	1.978.213,54€		+44.360,99€
2018	1.860.963,12€		+110.198,48€
2017	1.780.646,00 €	-35.930,11€	
2016	1.705.086,94€	-35.543,13€	
2015	1.579.007,68€		
2014	1.527.817,87€		+15.281,81€
2013	1.457.070,19€	-32.065,77€	


## 19.- ONDORIOAK

- AURREZKI ARRUNTAREN JOERA:**

Aurtengo ekitaldian sarrera arrunten eskubide onartuak, 1,2,3,4,5 eta 9 kapituluak (4.761.189,20€) gastuen obligazio onartuak (3.924.090,20€) soberan gainditu egin ditu 837.099,00€ eurotan. Bi ekitaldien konparaketan %1,99 igo da aurrezki arrunta.

2025 aurrekontuen aurrezki arrunta beraz oso positiboa izan da, eta ondorioz Udala gai izan da sarrera arruntekin gastu arruntei aurre egiteko eta inbertsioak finantzatzeko baliabide propioak izatea, 837.099,00€ hain zuzen, sarrera arrunten %17,58.

	2025	2024	diferentzia
• Eskubide onartuak ( sarrera arruntak, 1,2,3,4,5 kapituluak)	4.718.526,96	4.413.029,58€	305.497,38€
• Onartutako obligazioak ( gastu arruntak, 1,2,3,4, 9 kapituluak)	3.924.090,20€	3.724.963,06€	199.127.14€
<i>Aurrezki arrunta 2025</i>	794.436,76€	688.066,52€	106.370,24
	%16,84	%15,59	



- MAILEGUAREN AMORTIZAZIOA:**

2025 ekitaldian hiruhileroko amortizazioaz gain Udal batzarrak 2006ko maileguaren saldoa erabat amortizatzea erabaki zuen, horrela 101.275,00ko borondatezko amortizazioa egin zuen.

Bestalde, Kiroldegi aurreko estalkiaren instalazioa finantzatzeko 2025eko irailak 12an mailegu berria kontratatu zuen Kutxabank-ekin, guztira 751.000,00€. 10 urtean amortizatzeko eta interes tipoa Euribor + 0,13. Mailegu berriak sortu duen zor biziaren karga %15,92koa izan da.

- **PLAN EKONOMIKO FINANTZARIOA:**

15. Atalean adierazi bezala Aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunari buruzko “Gastu araua, aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna” bete ditu eta ez du plan ekonomiko finantzariorik onartu behar, Udal batzarrari komunikazioa egin baizik.

- **DIRUZAINZA GERAKINA – GASTUEN TXERTAKETAK**

Aurtengo likidazioak diruzaintza gerakina positiboa eman du (2.017.928,07€), baina kontutan izan behar dugu hainbat gastu ez zirela exekutatu, A edo AD fasean, eta 2026ko ekitaldira txertatu beharko direnak. Kreditu guzti hauek ez dira txertatutako, lehenengo AD guztiak aztertuko dira eta batzuk baztertu AD/ eragiketa eginez, gainerakoak ekainak 30 baino lehen txertatu ahal izango dira.

Eta beste aldetik ez dago gehiegizko finantzaketa lotua (0,00€), beraz, diruzaintza gerakin guztia gastu orokorretareako erabili daiteke.

Getarian, 2026eko martxoaren 25ean  
Idazkari-kontuhartzailea